

Ander Zuloaga

Donostia Unibertsitate Ospitaleko euskara teknikaria

Berariazko trebakuntza. Bideoaren laburpena.

Trebakuntza ikastaroak, euskara ezagutza duten profesionalentzat erabilerarako pausoa emateko aukera gisa ikusi badira ere, zenbait kasutan ez da lortu aurreikusitako emaitza.

Zeintzuk izan daitezke berariazko trebakuntzaren gakoak?

Anderren ustez, beharrezkoa da ikastaroaren edukien eta langilearen eginkizunen arteko hurbilpena, hau da, ikasitakoak erabilerarekin lotura zuzena izatea.

Horretarako, trebakuntzan 3 fase ondo lantzea proposatzen du:

1. Prestaketa fasea: langilearen eginkizun komunikatiboen azterketa egin (mezuak, testua, telefono bidezko harremanak,...), gaitasuna ebaluatu eta konpromisoak adostu.
2. Ikastaroa
3. Jarraipen fasea: konpromisoen jarraipena egin eta laguntza eskaini.

Orain arte, ikastaroaren faseari garrantzia handia eman bazaio ere, aurreko eta ondorengo faseetan gehiago sakondu beharra ikusten du Anderrek.